

Gomendatutako liburua:

-Hitchcock, Henry-Russell. "Arquitectura de los siglos XIX y XX". Cátedra. Madrid. 1998.

ARKITEKTURA

XIX. mendearen amaieratik XX. mendearen hasiera bitartean garatutako Arts & Crafts mugimenduaren eragina ikusgarria eta ezberrik gabekoa izan zen, batez ere britaniar eta estatubatuarren arkitekturaren, arte dekoratiboetan, eskulangintzan eta lorategietan. Arlo honen eragilerik aipagarrietarikoak Frank Lloyd Wright eta Edwin Lutyens izan ziren.

Art Nouveau mugimenduaren aztarnak ere, arkitekturaren arloan nabariak izan ziren. 1900. urtearen inguruan Victor Horta material berriak, (burdina eta beira) erabiltzen hasi zen. Hark egindako eraikinetan beirazko gainazal handiak, metalezko marku edergarriak eta teilatu uhinduak ezarri zituen. Antzeko modura baina espainiar modernismoaren testuinguran, Antonio Gaudik (1852-1926) aparteko arreta merezi du, oso proiektu trebeak gauzatu zituelako.

1900-1920 bitartean arkitekturaren epe aldakorra garatu zen, aurreko joerak alde batera utziz eta sinpletasun formalera eta raziotaltasun konstruktibora joz. Bidebategi, Joseph Hoffmann-en eraikinak azpimarratzekoak dira. Industrializazioaren etengabeko garapenean Walter Gropius-ek eta Adolf Meyerrek beiraren aukera formalak erakutsi zituzten Koloniako Werkbund Erakusketan, 1914an.

XX. mendearen hasieran fantasiaren kontzeptua eta arkitektura bat egin zuten, Koloniako Erakusketarako Van de Veldere-k egindako proiektuarekin. Lotura honekin jarraituz, Bruno Taut-en proposamenak eta Erich Mendelsohn-en behatoki astrofisikoa aipatzekoak dira. Aurreko eraikinean hormigoia modelaketa plastikoaren aukerak garatu ziren.

Nazioarteko estiloa 1920-1945 bitartean kokatzen da. Arkitektura modernoaren aldi heroikoa izan zen. Hemendik aurrera, abangoardiak eragindako esperimentuak arkitekturaren saiateren hasi ziren. 30. hamarkadan estilo hori mundu osoan zehar hedatu zen. Estilo honetan hurrengo ezaugarriak bultzatu ziren, batez ere: nazioarteko oihartzuna, erregio-ezaugarriak gabeko balio formalak, ortogonalitatearen gaitasunak, aplikazio edergarriak gabeko gainazal leunak, arintasunaren efektu bisuala, teknika berrien erabilera (hormigoia armatua) hedadura espazialak lortzeko. Joera hori bultzatzen zuten artean Walter Gropius, Mies van der Rohe, Le Corbusier, J.J.P.Oud eta Philip Johnson aurki daitezke.

Abangoardien barruan, De Stijl mugimendurekin batera, Gerrit Rietveld-ek (1888-1964) "Schröder Etxea" eraiki zuen, balio elementuak, irekiak, asimetrikoak eta antidekoratiboak ezarriz. Eraikin neoplastizistak plano independenteetan eta meheetan oinarritutako bolumentria konplexua eta flotatzailea erakusten zituen. Café L'Aubette-ren barruko diseinua ere azpimarratu behar da, van Doesburg-en lerro diagonalak, hain zuzen ere.

Konstruktibismoan, iraganeko forma arkitektonikoak alde batera utzi ziren, estatu sobietarraren ordena berria irudikatuz. Horretaz gain, proiektuak diseinatu ziren, Lenin-

en tribuna eta Tatlin-en “Hirugarren Internazionalari Omenaldia” bezalakoak. Beste proiektu intesgarri batzuk hurrengoak ditugu: Malevich-en arkitektoneak eta El Lissitzky-ren proun-ak.

Walter Gropius-ek 1919. urtean eratutako Bauhaus arte-eskolan arkitektura-proiektu desberdinak garatu ziren. Ezin da Mies van der Rohe-ren espazio fluidoaren kontzeptua ahaztu, Tugendhat (1928-1930) etxean aplikatutakoa.

Europa abangoardien artean mugitu zen bitartean, Estatu Batuetan etxe-orratzetara egokitzen zen indar klasizista mantentzen jarraitu zen. Eraikinik enblematikoenetarikoen artean, William van Alen arkitektoaren Chrysler etxe-orratza (1928-1930) nabarmentzen da, erdi-borobil forma eta hirukidun gai erremate mailakaturak duena. Geroago, ideia modernistak Filadelfiako PSFS eraikinan (1929-32) aplikatzen hasi ziren, George Howe-k eta William Lescaze-k eraginda. Nazioarteko estiloa Estatu Batuetan zehar hedatu zen 1932. urtean New York hiriko Arte Modernoaren Museoan antolatutako “Arkitektura modernoa” nazioarteko erakusketari esker.

GAIARAKO ARTELAN INTESGARRIAK

EDWIN LUTYENS

-“Deanery Garden” (1902)

FRANK LLOYD WRIGHT

-“Winslow house” (1893-94)

-“Fallingwater” (1934-37)

VICTOR HORTA

-“Solvay Etxea” (1895-1900)

ANTONI GAUDI

-“Familia Sakratua” (1883-1926)

-“Güell Pabeioak” (1884-1887)

-“Calvet Etxea” (1898-1900)

-“Güell Parkea” (1900-1914)

-“Milá Etxea” (1906-1910)

ADOLF LOOS

-“Michaelerplatz” (1909-11)

-“Steiner Etxea” (1910)

JOSEPH MARIA OLBRICH

-“Sezession Edifizioa” (1898)

METER BEHRENS

-“Turbinenfabrik” (1908-09)

ERICH MENDELSON

-“Einstein Dorrea” (1917-21)

BRUNO TAUT

-“Behatoki astrofisikoa” (1914)

GERRIT RIETVELD

-“Schröder Etxea” (1924)

THEO VAN DOESBURG – HANS ARP

-“Café L’Aubette barneko diseinua” (1926-28)

VLADIMIR TATLIN

-“Hirugarren Internazionalari Omenaldia” (1919-20)

KASIMIR MALEVICH

-“Arkitektonak” (1923. urtetik aurrera)

EL LISSITZKY

-“Proun-ak” (20. hamarkada)

KONSTANTIV MELNIKOV

-“Sobiet Batasuneko Pabeioa Pariseko Erakusketarako” (1925)

LE CORBUSIER

-“Citrohan Etxea” (1920-22)

-“La Roche” (1923)

-“Villa Saboya” (1929)

MIES VAN DER ROHE

-“Villa Tugendhat” (1928-30)

WILLIAM VAN ALEN

-“Chrysler Edifizioa” (1928-30)

GEORGE HOWE ETA WILLIAM LESCAZE

-“PSFS Edifizioa” (1929-32)